



Aizkibelen Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia: eskuizkributik argitalpena

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Aizkibelen Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia: eskuizkributik argitalpena. 2009. <artxibo-00413752>

HAL Id: artxibo-00413752

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00413752>

Submitted on 6 Sep 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**AIZKIBELEN EUZKERATIK ERDERARA BIURTZEKO ITZTEGIA:
ESKUIZKRIBUTIK ARGITALPENERA**

Euzkeratik Erderara'

biurtzeko

Itztegia

EKAITZ SANTAZILIA
Euskal Lexikografia (R. Gómez)
Euskal Filologian Liz. 4.
UPV-EHU
2009-05-05
2009-06-09 (2. berts.)

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
0.1 Nor da José Francisco Aizkibel?	3
0.2 Gure lanaren nondik norakoak	3
1. EUSKERATIK ERDERARA BIURTZEKO ITZTEGIA	4
2. ESKUIZKRIBUTIK ARGITALPENERA	4
2.1 Sarrera gisa	4
2.2 Testuan sartuz	5
2.2.1 <i>Formatua</i>	5
2.2.2 <i>Tipografia</i>	6
2.2.3 <i>Grafia eta fonologia</i>	7
2.2.4 <i>Edukiak</i>	9
2.2.4.1 Eskuizkribuaren idatzaldiak	9
2.2.4.2 CH-ren auzia eta eromena	10
2.2.4.3 Desbideratzeak	11
2.2.4.4 Laburdurak	12
2.2.4.5 Gehiketak, ezabaketak, moldaketak eta zuzenketak	13
2.3 “Prólogo”-aren informazio baliagarria	14
3. HIZTEGIAK BI ARGITALPEN? ZENBAT FASZIKULU?	15
4. LABURBILDUZ	19
5. BIBLIOGRAFIA	21

AIZKIBELN EUZKERATIK ERDERARA BIURTZEKO ITZTEGIA: ESKUIZKRIBUTIK ARGITALPENERA

0. SARRERA¹

0.1 Nor da Jose Francisco Aizkibel?

Jose Francisco Aizkibel Epelderen (1798-1864) inguruan idatzi izan dira zenbait orri. Azkoitian sortua, betidanik izan zuen kulturarako zaletasuna. Kalonje baten babesean zientzia askotan murgiltzeko aukera izan zuen eta Erroma ezagutu zuen. Liburutegi bikaina osatzera ailegatu zen. Toledon ere bizi izan zen eta euskararekiko kezka, nabarmena da bere lanetan. Horietako asko galdu dira eta beste zenbait argitaratu, edo geroago agertu. Erromantikotzat jo izan da baina bere sorterriko Ilustrazioaren seme ere bazela gaineratu daiteke. Gazterik kultura handia lortu zuen pertsona izan zen Aizkibel. Bere bizitzaz gehiago jakiteko, aski ongi dago Satrustegik *Bidegileak* bilduman idatzitakoa (1998).

Garatek ere Aizkibelen bizitzaren berri ematen digu baina ezagutu izan zituen azkoitiarraren lanen zerrenda baliagarria ere badakar (1947: 530-532). Aguirrek ere bizitza eta obra kontatu dizkigu (1983), obren deskribapena egitearekin batera. Guk garrantzitsuenak aipatuko ditugu: eskuizkributan, “Diccionario Español-Vascongado” edo “Gramática analítica dela lengua bascongada” aipa ditzakegu: azken honetan ortografia eta literaturari buruzko disertazioak dakartza. Bestelako hiztegi batzuen eskuizkribuak ere burutu omen zituen: “Diccionario de Toponimia” edo “Diccionario de Inflexiones Verbales” eta etimologiei ere eskaini zien bere tarteak, “Tratado de Etimologías”-en, esaterako. Gauza gutxi argitaratu zituen euskararekin lotuak, bizi izan zen bitartean, eta zenbait hil ondoan argitaratu dira (Aguirre, 1983: 246-248), baina lanik ezagunena, dudarik ere gabe, *Diccionario Basco-Español* da, *Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia* izenez ere ezaguna eta hil ondoan argitaratua.

0.2 Gure lanaren nondik norakoak

Esan dugun bezala, *Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia* da Aizkibelen lanik ezagunenetakoa. Hil ondoan argitaratu zen eta edizioaren dotoreziak ikertzaile zenbaiten atentzioa deitu du. Bistan dena, hiztegia autorea zenduta argitaratu baitzen, eskuizkribu batetarik abiatu zen editorea. Zorionez eta beste kasu batzuetan ez bezala, eskuizkribua eta edizioa, biak ditugu egun ikusgai. Argitalpena egin zenerako ia 40 urte pasa zirenez, eskuizkribua eta egin zen argitalpenaren artean desberdintasun eta berrikuntza zenbait egonen zirela zen gure susmoa, teknika lexikografikoak, euskarari buruzko ezagutzak eta irakurleen interesak aldatuko ziren heinean.

Gutxitan dugu euskalaritzaren munduan eskuizkribua eta edizioa konparatzeko aukera eta Aizkibelen *Itztegia*z mintzatu direnek edizioa soilik izan zutela kontuan ikusita, bien arteko konparazioa egitera ausartu gara. Makro eta mikroegiturak alderatu ditugu, edukia eta formatua; ondoren, ikertzaileei aski buruhauste sortu dizkien gai bati, hiztegiaren egiazko argitalpen urtearen auziari alegia, argi pizar bat ematen saiatu gara, konparazioak egitean ustekabearen egindako aurkikuntza zenbait hona bihurtuz.

¹ Lan honetan agertzen diren argazkiak dagokion Koldo Mitxelena Kulturunearen baimenarekin egin ditugu, baina ikerketarako baino ezin dira erabili. Argitaratzeko eta hedatzeko eskubiderik ez dugu, beraz.

Finean ikusiko dugunez, hiztegiaren edizioko ezaugarri zenbait ez dakizkioke Aizkibeli egotzi, bai gero egindako moldaketa edo akatsak izan direlako edo eskuizkribuko hutsak zuzendu egin direlako. Edonola ere, eskuizkribua behatu izanak Aizkibelen beraren zuzeneko lekukotasuna eskaini digu, bere lan egiteko moldeez zerbait gehiago jakiteko.

1. EUZKERATIK ERDERARA BIURTZEKO ITZPEGIA

Tolosan argitaratu zen Eusebio Lópezen moldiztegi, 1883 edota 1884 urteetan, egilea hil eta 20 bat urtetara, beraz. Atalka argitaratu zen, eta harpidedunei bidali zitzairen lehenik. Aizkibelen helburua Larramendiz geroztik egon ez zen lan lexikografiko zabala egitea izan zen, filologoaren lanaren lagungarri eta hizkuntz altxorren gordetzailerik, euskarak behar zuen garapena Europa mailan lor zezan:

...para los estudiosos aplicados á estas dos ciencias [filologia eta etnografia], que siempre van unidas, he trabajado en reunir esta recopilación de voces bascongadas, que podrán serles de alguna utilidad en sus investigaciones... (Aizkibel, 1883: "Prólogo")

Hiztegi norentzat idatzi zuen, beraz, ezaguna da, baina dakigunez, ez zuen argitaratzerik izan eta pentsatzekoa da hiztegi horren publikoa alda zitekeela, 20 urte beranduago argitaratu zenean. Edizioaren hondarrean harpidedunen zerrenda heldu da, oso eranskin interesgarria, XIX. mendearen azken 20 urteetan horrelako obra baten publikoa zein zen jakin nahi badugu. 1420 bat harpidedunen izenak ageri dira eranskin horretan eta bertan esaten zaigunez: "Todavía no hemos recibido la lista de los Suscritores de algunos puntos lejanos" beraz, gehiago izanen ziren harpidedunak eta gehiago oraindik gerora erosiko zutenak. Orduko euskal hiztegi bat izateko izugarriko arrakasta izan zuela esatera ausar gintezke. Aleak, edonola ere, ez ziren denak Euskal Herrian saldu, Madrilerik ale mordo bat joan ziren, Ameriketara eta Europara ere bai. Alde horretatik, eta ezagutu izan balu, Aizkibel pozik geratuko zen bere lanaren zabalkunde geografikoarekin. Herri txikietan eskolak eta apaizak izan ziren erosle nagusienak, baina orduko burgesia, noblezia eta kultur jendearen artean ere abegi ona izan zuen. Harpidedun ezagunen artean, aipatzekoak dira: Jose Manterola, Marcelino Soroa, Felipe Arrese-Beitia, Federico Baraibar, Federico Berasteguigoitia (sic, Belausteguigoitia), Arturo Campión, Juan Iturralde y Suite (sic), Florencio Arsolaga (sic, Ansoleaga), Cánovas del Castillo, Pi y Margall, Fidel Fita, Becerro de Bengoa, Vinson, Intxauspe, Duvoisin, Abadia, Maurice Harriet, Bonaparte printzea, Van Eys eta abar.

Beraz, bistan dena, Aizkibelek bere helburua betea ikusi zuen, hil ondoan izanik ere, filologoez gain, jende askok eskuratu baitzuen bere obra.

2. ESKUIZKRIBUTIK ARGITALPENERA

2.1 Sarrera Gisa

Konparazio lana egiteko, jakina, ez dugu hiztegi osoa kontuan hartu, lagin bat baizik. Testu argitaratutik hautatu dugu lagina, EHU-ko Koldo Mitxelena liburutegian dagoen fotokopiatik, alegia. Honako hauek hartu ditugu kontuan konparaziorako: azal txikia, azala, kromoa, kromoaren deskribapena, López editorearen hitzaurrea, Real Academiaren ebazpena, laburduren zerrenda, "Euskaldunak" hitzaurrea, gaztelaniazko


hitzaurrea ortografiari buruzko pasartearekin, A letrako 2-7 orrialdeak, B-ko 79, C-ko 145 eta 189, D-ko 189, E-ko 225, H-ko 357, Ch-ko 383, N-ko 735 eta 753, S-ko 907-911 eta Z-ko 1028. orrialdea. Eranskina kanpo utzi dugu, eskuizkribuan (hemendik aurrera ES) ez delako agertzen. Azkenik, harpidedunen zerrenda ere hartu dugu. Horrezaz gain, ale argitaratuen arteko konparaketarako ale desberdinak erabili ditugu (§3).

Konparaketa egiteko, makroegitura eta mikroegitura hartu ditugu kontuan. Horien barnean, tipografia, grafia/fonologia, formatua eta edukiak begiratu ditugu.

2.2 Testuan sartuz

2.2.1 *Formatua*

Eskuizkribuaren formatua deskribatuko dugu lehenik; modu horretan, ezagunagoa den argitalpenarekin konparatzeko aukera izanen dugu gero. Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen da “091 AIZ euz” signaturapean. Lópezek eskuizkribu hau erabili zuela hiztegia argitaratzeko gauza nabarmena da,² enkoadermatua agertzen baitzaigu, geroko argitalpenak izanen zuen antzeko estalkiekin eta litekeena da hiztegiari izenburua Lópezek berak eman izana (Diccionario Basco-Español)³ beraz, enkoadermatzioa Lópezen garaikoa da, 1883 ingurukoa.



Eskuizkribuaren kanpoko itxura. Tamainaz oihartzeko, boligrafoarekin erkatu.


1200 orrialde inguru kalkulatu dizkiogu eskuizkribuari. Bertan, “Euskaldunak” hitzaurre amaitugabea,⁴ gaztelaniazko “Prólogo” eta hiztegia bera daude. Hiztegiko sarrerak bi zutabetan banatuak daude, argitalpenean bezala eta izenburutxorik ez da ageri. Argitalpenean datorren eranskina ez dago eskuizkribu honekin batera. Aizkibelek jadanik ES-eko “Prólogo”-n dioskunez, “Si bien a estas fechas tengo concluído mi Vocabulario bascuence-español, tengo que añadir un largo apéndice” (Aizkibel, 1883: “Prólogo” V) beraz, eskuizkribu honetan agertzen dena amaitua zuen (hiztegia barne),

² Baliteke Aizkibelek honen aurretik beste bertsio batzuk egin izana, oso bakanak baitira aurkitzen diren ezabaketa edo zuzenketak.

³ Gaztelaniazko izenburua ez da zuzenean Aizkibelek emana, editoreak baizik. Eskuizkribuan soilik *Euzkeratik Erderará biurtzeko Itztegia* izenburua da ageri dena. *Diccionario Basco-Español* Aizkibelek C letrari buruzko disertazioan aipatzen du (Aizkibel 1883: 146).

⁴ “La introduccion escrita en vascuence que dejó sin concluir el malogrado Sr. Aizquibel, ha sido terminada, á instancias de la Diputacion de Guipúzcoa, por el ilustrado bascófilo D. Manuel A. de Antía, rector de Urnieta, quien ha desempeñado su cometido con sin igual acierto” (Iturralde y Suit 1882: 348).

beste eskuizkribu batean hitzaurrea idatzi zuenean. Eranskina non dagoen ez dakigu eta gainera, ez dugu bilatu.



Orri baten adibidea: bi zutabe eta izenburutxorik ez.

Argitalpena (hemendik aurrera zenbaitetan AR deituko duguna) liburuki bakar batean edo bitan egin zen eta 1304 orrialde inguru zenbatu dizkiogu (§3). Lau orrika plegua zenbatzen da (salbu 5.a, inprenta huts batengatik) eta izenburutxoak gehitu dira. ES-en sarreraren artean hutsuneak aurkitzen ditugu, dudarik gabe, gehiketak egiteko, noizbait ere hiztegia osatzeko; izan ere, hori ez zen izan behin betiko testua: “no pienso por ahora, publicar mi obra, hasta tanto que pase muchas veces por el crisol de una crítica justa y razonada, valiéndose para ello de personas inteligentes en la materia” (Aizkibel, 1883: “Prólogo” V). López editoreak ez zion garrantzirik eman baieztapen honi eta obra gutxi gorabehera zegoen bezala argitaratu zuen. Aurrerago erakutsiko dugun moduan, obra guztiz bukatu gabe egotearen ondorio batzuk badira argitalpenean. AR-en, jakina, hutsune horiek ez dira errespetatu eta sarrera guztiak elkarren segidan doaz, aditz eta deklinabide paradigmak sartzen direnean salbu, horiek espazio baten bidez bereizi baitira gainontzeko sarreretatik.

2.2.2 Tipografia

ES-en ez da letra larririk erabiltzen, denak dira letra xeheak; AR-en, ordea, letra larriz agertzen dira sarrera-buruak eta azpisarrerak. Azken hauek ES-en azpimarratuak agertu ohi dira.

Aizkibelek eskuizkribuan zenbakiak zifren bidez adierazteko ohitura du baina edizioan, estilo kontu hutsengatik segur aski, zifrak zenbaki erromatarren bidez ordezkatu dira.

Sarreretan antolakuntza eta puntuazio zeinuak ageri dira, espero bezala. Bai AR-en bai ES-en puntuazio zeinuak berberak dira: puntua, koma, puntu eta koma eta pleka bikoitza (||) erabiltzen dira, baina ez dira beti ES-en agertzen diren kasu berberetan AR-en erabili.

ES-en puntuazioa erabiltzean sistematikotasun eza nabarmena da, batez ere eskuizkribuaren hasiera eta amaiera konparatzen baditugu. Horretaz jabeturik, AR-en koherentzia mantentzen saiatu dira, baina ez dute beti lortu, zenbaitetan Aizkibelek ES-

en zekarren puntuazioa zuzen-zuzenean moldatu gabe kopiatzeak duen erosotasuna aprobetxatuz, ziur aski. Ikus ditzagun adibide zenbait. AR-en plika bikoitzak adierak bereizteko erabitzeko joera dago baina ES-en ez dira beti agertzen: horregatik batzuetan gehitu egin dira, esaterako, *ADIGARRI* sarreran. *Significación* eta *prospecto* hitzen arteko plekak ez daude ES-en; bai aldiz, *Inteligible*-ren aurretikoak. Azpisarrerak bereizteko plekak erabili ohi ditu Aizkibelek, baina AR-en kendu egin dira oro har, azpisarrera letra larritz egoteak markatzen duelako hasiera. Edonola ere, sistematikotasun eza nabarmena da bai AR-en, bai ES-en.

AR-en zenbaitetan letra etzanak ageri dira, oro har azalpenak gehitzen direnean. ES-en batzuetan azpimarraturik agertzen badira ere, ez da beti horrela. Esaterako, *EPERRIDIA* sarrerako azalpena, AR-en letra etzanez, azpimarratua dago ES-en, baina *ERAA* sarrerakoa, aurretik ez sobera urruti, ez dago hala.

ES eta AR-en artean bada desberdintasun garrantzizko bat tipografiari dagokionean. AR-en sarrera buruen eratorpen morfemak gidoi bidez banatuak daude, esaterako: *GIZON-EKIN*, *dizki-EGUNEAN* edo *SOÑU-GILLEA* eta batzuetan banaketa morfologiko gardena ez duten hitzetan, horrelako gauzak ageri dira: *SOÑ-UZTAIA* (soñu+uztaia), *NAGITSUA-GO*, nahiz eta A letran oso bakanak diren banaketa morfologiko hauek, paradigmatan salbu. Edonola ere, argi geratu behar da gidoi bidezko morfema banaketa hauek edizioan soilik ageri direla, hots, ez direla inolaz ere Aizkibelenak; hortaz, euskal morfologiaz egindako saioa 1883 urte inguruan Tolosako editoreak edo enkarguz beste inork egin zuen eta ez da Aizkibelen euskarari buruzko ideiekin lotzen ahal.

Aizkibelek, “Euskaldunak” hitzaurrea amaitu gabe utzi zuen, eta hori da euskaraz idatzitako ekoizpen bakanetakoa, baina oso interesgarria, egilearen beraren hizkeraz jabetzeko. Atal honetan puntuazioa aldatu da zenbaitetan, komak, batik-bat, baina puntu eta aparte bat ere bai. Puntuazio gaurkotzea bat izan da, eta gaur egungo puntuaziotik hurbilago dago AR-ekoa, ES-ekoa baino. Berdin gaurkotu dira letra larri batzuk: ES-en *Prusiatar* edo *Euskerazko* dauden bitartean, AR-en letra xehez ageri dira.

Arestian aipatzen genuen gidoi bidezko morfema banaketa, hitzaurreko zenbait hitzetan ere ageri da AR-en, baina ez ES-en, jakina: *itz-aurrean* edo *itz-tegi* gidoigabeak dira ES-en.

2.2.3 Grafia eta fonologia

Aizkibel ezaguna da jadanik XIX. mende hasieran euskal grafia bat proposatu zuelako, gaur egungoarekin antz handia duena, bide batez. Pentsatzekoa da bere lanetan grafia horri jarraituko ziola, baina gauzak ez dira uste bezain argiak. Ulertu behar da ohiturarik gabe euskara estandar bat grafia estandar batekin besterik gabe egitea zaila izan behar dela. Eskuzkribuan bere grafia sistema, sistema tradizionalagoekin nahastua ageri da eta argitalpenean hori berdintzen saiatu dira, nahiz eta kontradibideak badiren. Datozen lerroetan Aizkibelek erdal grafiari eta euskalkiari zion halabeharrezko lotura adierazten saiatuko gara.

Lehenik eta behin, argi gera dadila, berriz ere, berak bazekiela bere eskuizkribuko grafia ez zela beti koherentea, baina gogoan izan hori ez zela momentuz argitaratzeko moduko zerbait, bere ustez: “como he adoptado el nuevo sistema de ortografía que hallo más razonable, no pienso por ahora publicar mi obra...” (Aizkibel, 1883: “Prólogo” V).

2.2.2-n aipatu dugun “Hitzaurrea”-k <c> batzuk baditu ES-eko bertsioan, *Francian*, *Provincia*, *cergaitik* edo *cer* bezalako hitzetan, eta horiek <z> bihurtu dira AR-en, grafia gaurkotuz.⁵ Aizkibelek bere grafia berriari buruzko pasartean hau dio: “yo uso de la k en *ka*, *ke*, *ki*, *ko*, *ku*, porque esta letra por si solo llena mis necesidades...” (Aizkibel, 1883: “Prólogo” VII) eta *Euskaldunak*-en betetzen saiatzen da, baina argitalpenean horri muzin egin, eta ES-en *asko*,⁶ *asabak*, *aregandik* eta *billatuko* dugun bitartean, AR-en <c>-z eman dituzte hitzok, dena <k>-rekin eman beharrean, jatorian ez zeuden txandaketak agertuz.

Denbora berean, Aizkibeli ez zaizkio gustatzen /g/ soinurako <u>-dun digrafoak: no debe preceder la u en *guizon*, *guero*, etc.; (...) sino que se debe suprimir, y escribir *gizon*, *gero*, etc.” (Aizkibel, 1883: “Prólogo” VII). Baina bera da araua apurtzen lehena, ES-en *eguiten* dagoen bitartean, AR-eko “Hitzaurrea”-k *egiten* baitakar.

Dударик gabe, ES-eko “Hitzaurre”-tik AR-ekora zerbait aldatzen bada, fonologia da. Aizkibelek euskalkiko fenomeno fonologiko batzuk agertzen ditu testu honetan (gero hiztegian ez daudenak) eta argitalpenean saihestu dira. Nabarmenak dira, lexikoko zenbait adibide: ES; *Euskel*, *eskueraz*, *ifiniak*, *jente*, *ecein*, *onore*, *orietan* AR; *euskal*, *euskeraz*, *ipiniak*, *jende*, *ze*, *ohore*, *oietan*. Baina fonologiakoak ere badaude. Hiatoetan, ES-en usu kontsonante anti-hiatikoa ageri da: *aijen*, *errijetan*, *begijak andijarekin*, *eiztarijak*, *anaijeri*, *gustijari*. Argitalpenean <j> horiek guztiak ezabatu dira eta bakan batzuetan <y> sartu; *ayen*, *begiyak* edo *anaiyei* dira horren adibide. Morfologian ere badira aldaketak, esaterako, datibo pluralerako, aurreko adibideek erakutsi bezala, *-ari* azaltzen da ES-en eta *-ei* aldatu da AR-en. A+a>ea fenomenoaren adibideak ere badaude ES-en, testu inprimatuan kendu diren bitartean (ES: *gauzia*, AR: *gauza*).

Mendebaldeko (eta erdialdeko) hizkeretan bezala, Aizkibelek txistukarien neutralizazioaren adibide gardenak ditu ES-en. Testuinguru ohikoenean, herskari horzkari aurrean, beti apikaria dakar: *gustian*, *Gastelaniaz*, *bastertzen*, *astartzen*; baita jatorri apikariko formetan ere, apikaria dakar eta ez euskaraz ohikoa den bizkarkaria, *eskutu* edo *Eskribau* hitzak adibide. Bokalarterik ere badu, *irabasi* kasu. Horiek denak, AR-en bizkarkariarekin ordezkatu dira. Txistukarien neutraltze horren adibiderik politenetarikoa *azko* da, hiperzuzenketaz egina, eta AR-en zuzendua. Apikaria gehitu dute, bestalde, AR-en ES-ek *aberatzenak* dakarren tokian.

Egin dezagun jauzi hiztegiara berera. Aizkibelek, euskal autoreek ohi ez bezala, azentu grafikoak erabiltzen ditu, nahiz eta oso bakan (cf. lan honen azala). “Hitzaurre”-ko adibidea da *SORTERRÓ* eta hiztegiakoak *HARÁ*, *CHALKIÁÁ*, *CHALKARRÁ*, *NEURRITÚ*, *NEURRI BAGERÓ*, *SORRÁ*, *SORKIDARÓ*, *SORIRÓ*, *SORIEZKIRÓ*, *SORTÁ*, *SORTIZKORÓ*, *SORTÚ*, *SOSTAGIRÓ*, *SU ARMÁ*, *SUARRÁ*, *SU ANTÚ*, etab.⁷ AR-en denak kendu dituzte, dudarik gabe, erakusten duten sistematikotasun ezagatik. Hiztegiaren amaierako letretan gehiago agertzen dira hasieran baino eta ez da erraza noiz eraman behar duten berreraikitzea, nahiz eta bistakoa den adibideotan, *-ro* atzizkiak, *-tu* partizipioak, eta *-a* artikulua hartu ohi dutela baina inolaz ere ez beti.

⁵ Aizkibelek berak ES-en *Franzian* idazten du pixka bat gorago.

⁶ Egia da Aizkibelek berak ES-en *asco* ere idazten duela lerro batzuk beherago.

⁷ Hemengo asko *HH*-tik hartuak dira eta bertan azentugabeak dira.

Hiztegian grafia gaurkotzeak egon dira, Aizkibelen beraren sistemara egokitzeko. A letraren hasieran *GIZON* hitzaren deklinabidea ageri zaigu: AR-en *GIZON* idatzi duten bitartean, ES-en *GUIZON* dugu. Paradigma horretan bertan, *-quin* idazten du Aizkibelek eskuizkribuan, baina *-kin* gaurkotu da AR-en. Eta *BALAKU GEZURTIA* da AR-en, ES-en *BALAKU GUEZURTIA* dena. Gauza bera gertatzen da diakritikoekin, *ADAUSSIA* baitugu ES-en eta *ADAUŠIA* AR-en, Aizkibelek berak egindako proposamenari jarraiki. Ildo beretik, ES-en dauden <c> batzuk <z>-k ordezkatu ditu AR-en (*CHANKA-LUCE*, *ABSOLBICIONEA*). Grafia berria hiztegiaren A (eta B akaso) letra idatzi zuenean oraindik guztiz sartu gabe zuela frogatzen digu honek, bakanak baitira aurrerago horrelako gaurkotzeak (*SOMIÑAKIN* dator ES-en, adibidez). Gurerako axola urriagokoa bada ere, erdal grafian ere gaurkotzeak egin dira: ES; *muger, obillos, congeturar, estension* etab. AR; *mujer, ovillos conjeturar, extensión*.

Grafia gaurkotzeez gain, moldaketak ere badira “Hiztegia”-n. Ozen ondoan frikaria idazten du Aizkibelek zenbaitetan: *GUIZONARONZ, GUIZONENZAT, BALDANZARRA, BALANZATEGI* ditu, denak afrikatuarekin testu inprimatuan. AR-en ordea, *SORT-ALDERONZ* bezalakoak ere auki ditzakegu. Bestalde, *ABERTIMENDUA, ABISAMENDUA, ADIMENDUA* dago ES-en eta AR-en *ABERTIMENTUA, ABISAMENTUA, ADIMENTUA*. Azken honetan AR-ek bateratzeko joera izan du, ES-en bertan badugulako <t>-dun formarik. Grafia/Fonologia atala ixteko, esan dezagun hemen ere herskari aurreko txistukari zenbait ES-en apikariak direnak, AR-en bizkarkari direla: ES: *SORTALDEKO AISEA, SORTABASTA, ABOSTUKIA*,⁸ *ADIARASI, ADIARASIA*,⁹ *ADIARASTEIA*; AR: *SORTALDEKO AIZEA, SORTABAZTA, ABOZTUKIA, ADIARAZI, ADIARAZIA, ADIARAZTEA*. Ildo berekoa da <ñ> grafemaren auzia: *DIZKIÑ, DIZKIÑALA* dago AR-en, ES-en *DIZKIN* eta *DIZKINALA* dauden bitartean, baina paradigma horretan bertan ES-en <ñ>-dun formak agerten hasten dira; horregatik AR-en bateratzera jo dute. Erdarazko zatietan ere aipatzekoak dira gaurkotze/moldaketa batzuk, hala-nola: ES; *substituyendo, fojas* AR; *sustituyendo, hojas*, edo azentuazio kontuak.

2.2.4 Edukiak

Luze mintzatu gara desberdintasun formalez, baina edukietan zenbait bariazio badira eskuizkributik argitalpenera: esaldien egituretan kausi daitezkeen aldatetarik, desbideratzeetara, gehiketak eta ezabaketak tarteko.


2.2.4.1 Eskuizkribuaren idatzaldiak

Zuzeneko konparazioan hasi baino lehen, eskuizkribuan nabarmena den baina argitalpenean ezin igarri den kontu bati buruz solastu nahi genuke, idatzaldiez, alegia. Esan dugu jada eskuizkribua nahiko txukuna dela, ez duela lehen bertsioa irudi; dena dela, definitiboa ere ez zela frogatu dugu: gogoan izan Aizkibelek berak esaten digula testua behin eta berriz erreparatu nahiko lukeela (§2.2.1). Lan horretan hasi zela, ES begiratuta berehala ikusten da. Bi tinta mota oso ongi bereizten dira, bata bestea baino ilunagoa baita. Gisa horretan, tinta ilunagoarekin gehiketak egin zaizkio lehen idatzaldiko eskuizkribuari. Alde batetik, lehen idatzaldian Aizkibelek hitzen jatorria zein zen esateko parentesi hutsak irudikatu zituen (non laburdurak idatzi behar ziren). P letraraino aurkituko ditugu parentesi horiek bigarren idatzaldian beteta (laburdurarekin),

⁸ *HH*-n *aboztukia*, apikariarekin.

⁹ *HH*-n apikari.

hortik aurrera hutsik kausituko ditugu.¹⁰ Horrezaz gain, G letratik hasi eta P-raino berriz ere, definizio batzuk bigarren tinta horrekin osatu direla nabarmena da. Gainera, eskuizkribuko orriak bigarren idatzaldiko tinta horrekin berarekin agertzen dira zenbakiak, 865. orrialdera arte, hots, P letraraino berriro. Nabarmena da, beraz, hiztegiaren bigarren idatzaldi hori P letran amaitu zela eta bereziki emankorra izan zela G eta P letren artean.¹¹



Irudi txar honetan, bi tinten arteko aldea irudikatu nahi dugu. Sarrera burua eta Hiztegi Hirukoitz-eko (Larramendi, 1745) ordaina idatzi ziren lehenik, eta iturria eta definizioa gero.

Baina idatzaldien kontu horrek eta C letrari buruzko disertazioan aipatzen denak, zer pentsa ematen digu. Hara zer esaten duen Aizkibelek:

...mi diccionario Basco-Español es buen testimonio de que en aquella época [1831n] había adoptado esta reforma [ortografiarena]; pues las cédulas eran casi todas de mi puño para ponerlas en orden alfabética (sic) y de ellas copió mi escribiente (con mucho errores, por cierto.) los referidos cuatro tomos, dejando grandes entreglones¹² para añadir las voces que encontrase en la lectura de libros bascongados (Aizkibel, 1883: 146).

Horrek argi uzten du aztergai dugun eskuizkribua 1838 ondorengoa dela, baina zalantza handi bat pizten du. ES-en kopiazailea Aizkibel bera da? Ezin da jakin ES-ek lau liburuki zituen, enkoadernatua baitago, baina egia da hutsune handiak dituela geroagoko gehiketak egiteko. Beste tintaz ageri diren gehiketa horiek, lehen idatzaldiko kaligrafia berean eginak daude, autore berak, segur aski. Antza, ES-eko kaligrafia Aizkibelen gainontzeko testuetan ageri den berbera da eta horrek Aizkibelen egiletzaren alde egiten du, baina paragrafo honek zalantza irmoa uzten digu.

2.2.4.2 CH-ren auzia eta eromena

Aizkibelentzat <ch> hizkitzat hartu beharra zen, soinu baten adierazgarri zelakoan. Are gehiago, alfabetoan H-ren ondotik kokatu behar dela uste du. Editoreak, bitxitasun horretaz jabetuta, Aizkibelen nahia errespetatzen du, honako ogarra eginez: “Nuestros suscritores observarán cierta anomalía en el orden de colocación de la letra Ch; el Editor, por respetar las indicaciones del Autor, la publica en el mismo lugar en que la ha encontrado” (Aizkibel 1883: 381). Ba bai, baina ez. Ohartzen bagara, CH letra H-ren ondoan dago AR-en, bai, baina zeinahi letra hartuta, hitz barneko <ch>-ak edo <c>-ren ondoren kokatuak daudela ikusiko dugu,¹³ esaterako, *IBOIL-KOIA*, *IBOILA*, *ICHABALKIA*, *ICHADON* etab. Aizkibelek, ES-en azken muturreraino darama bere ustea, eta hitz barneko <ch>-ak ere <h>-ren ondotik kokatzen ditu. Gogorregia izanzen zen AR-en irakurleentzako horrelako hurrenkera berezia, eta beraz, ES-en <h>-ren ondoren ziren <ch> guztiak lekuz aldatu zituzten, <c>-ren ondotik ezartzeko. Horrek izugarritzko lana eskatuko dio editoreari, eta saiakera horretan ez dira gutxi eginen dituen akatsak, baita horietarik eratorritako desbideratzeak ere.

¹⁰ Salbuespen bakarren batean izan ezik.

¹¹ *Sorta-kija* eta *Sortatu* hitzen artean ere 2. idatzaldi hori ageri da. S letran eta ingurukoetan, hutsune handiak daude eskuizkribuan, Aizkibelek sarrera horiek osatzeko asmoa zuelako seinale.

¹² ES-en *entrerenglones*

¹³ Aizkibelek ez du C letra kontuan hartzen.

Horren erakusgarri da, adibidez, *Ach-* hasieradun letretan gertatzen dena.¹⁴ Aizkibekek, A letrarekin ibilki, oraindik ez du argi <ch> horiekin zer egin eta ES-en ere, *ACHA* eta *ACHOTEGI* bitarteko hitz batzuk <c>-ren ondotik ezarriko ditu, ez <h>-ren ondotik (1. sorta deituko duguna). Gero, <g>-ren ondotik, berriz ere *ACHA*-tik hasiko da hitzak gehitzen (2. sorta), *ach-* guztiak amaitu arte. Horien artean, lehendik ere sartutako batzuk errepikatuko ditu: akatsa dago, beraz, ES-en. Nola ekin zaio horri AR-en? ES-en <c> ondoren gehitutako hitz horiek AR-en ere modu horretan agertzen dira; ongi, kontuan izanik AR-en <ch>-dun hitzak <c> ondotik kokatu nahi dituztela. Baina, eskuizkributik zuzenean kopiatzen, *ach-*-dun hitzak amaitu eta *ad-* hasierakoak kopiatzen hasten dira, ES-en ageri diren hurrenkera berean. *ADABURUA* hitzetik *ADABURUTZEA*ra. Honainoko hitzei 1. sorta deituko diegu. Horren ondoren, 2. sorta deituko duguna hasiko da: berriz ere *ach-* hasierako hitzak txertatzen hasten dira, baina oraingoan *ache-* hitzetik amaierara. Kontua da, 1. sortan sartuak zituztela *acho-* hasierako pare bat hitz, eta 2. sorta honetan errepikatuko dituzte, kanpoan utziz ES-en bigarren sortan dauden *acha-* hasierako hitzak. Gainera, AR-en 1. sortan sartuak zituzten *ADABURUA* hitzetik *ADABURUTZEA*ra gehitutako hitzak berriz sartuko dituzte, *ad-* hasierako hitzekin hastean.

Egindako nahaste hau izanen da, segur aski, editorea A letraren bigarren argitalpen bat egitera bultzatuko duena (§3): horretan errepikaturik zeuden hitzak kendu eta ES-en 2. sortan agertzen diren baina AR-enean saihestu ziren *acha-* hasierako hitzak gehitu dira, denak <c> letraren ondotik, jakina. Bide batez, beste desbideratze batzuk ere zuzendu ziren (*ABUINDULLEA ABUINDUTZEA*ren aurretik ezartzea, esaterako) eta gero aipatuko dugun akats berriren bat ere egin.

2.2.4.3 Desbideratzeak

CH-ren hurrenkera ES eta AR-en desberdina izateak aldaketa batzuk egitera behartzen du editorea. Haratx adibide batzuk (ez denak): ES-en *ADINONGI* eta *ADINONCHOA* hurrenkera horretan ditugu, <ch> <h> letraren ondotik baitoa. AR-en, <ch> <c>-ren ondotik ezartzean, hitz horien hurrenkera irauli dute. *EPURCHOA* hitza ere, gorago ageri da AR-en, ES-en *EPURGAIZTUA* eta *EPURKADAREN* artean dagoen bitartean. *NACHOAKIK* eta *NACHOA-KIÑANEZ* bitarteko deklinabide paradigma, *nab-*-en ondotik dago AR-en eta ES-en, dagokion tokian. CH letraren barnean desbideratze franko daude AR-en, eta ez ditugu ES-ekin erkatu gure lagina urria baita eta ez baitigu horretarako lain ematen. Edonola ere, *CHANCHA* eta *CHANCHAKETA* bitarteko hitzak AR-en lekuz kanpo dauden bitartean, ES-en bere tokian daude, *chang-* eta *chanj-* artean.

Auzi hau alde batera utzita baina desbideratzeena abandonatu gabe, ES-en kausitzen ditugun desbideratze batzuk AR-en zuzendu direla ikusi dugu. Ez ditugu denak aipatuko, baina bai batzuk, adibide gisa. *ABITUa* sarrera *ABINARTATZEA* sarreraren ondotik dago ES-en, eta *ABITAZALEA* sarreraren ondoren ezarri da AR-en, dagokion tokian. *ADIZAK* ES-en *ADITZA* eta *ADITZAKOA* sarreraren artean dago eta AR-en *ADIUTZA*-ren ondotik jarrita zuzendu da. *EPPEA*, *EPPAITZA* eta *EPPATZEA* sarreraren artean zena eskuizkribuan, bere lekuan dago AR-en. *SORRERA* eta *SORRERIA* kontrako hurrenkeran daude ES-en. Eta gisa horretan, beste anitz.

¹⁴ Oso zaila da azaltzen eta komeni da AR bederen aurrean izatea.

Badira, halere, gaziki zuzendutako desbideratzeak. Adibide gisa, honakoa: *SOSAGATU* eta *SOSAGUA* daude ES-en. AR-en irakurketa oker baten ondorioz, *SOSAGUTU* irakurri da, eta jakina, *SOSAGUA* sarreraren ondotik ezarri. Gauza bera gertatzen da AR-eko *SORAIOTU* eta *SORAIS-TASUNA* sarrerekin; hurrenkera horretan daude AR-en, baina ES-en kontrakoan daude: zergatik? Bada, hitza ez delako *SORAIS-TASUNA*, *SORAIOTASUNA* baizik. Zuzendu beharreko baina zuzendu gabekorik ere bada: *ABSOLBIZIONEA* hitzarekin gertatzen dena hori da; ES-en <c>-z idatzia dago eta bere tokian agertzen da; AR-en grafia aldatu, baina tokia gorde diote, desbideratzea gertatuz.

2.2.4.4 Laburdurak

Ezinbestekoa da laburdurez mintzatzea. Cuberok bere lanean esaten digun gisan, “*Itztegia*-ren hasierako zerrendan azaltzen den zenbait laburdura ez da hor ageri bezala azaltzen ondorengo testuan” (Cubero, s.a. 9). Horri ekin baino lehen, aipatzekoa da AR-en hasierako labuduren zerrenda, AR-ekoa dela bakarrik, hau da, ez dela ES-en ageri.¹⁵ Horrek erakusten digu editoreak esfortzua egin duela ES-en azaltzen diren laburdurak bildu eta berdintzeko. Ikus dezagun: *Hiztegi Hirukoitza* aipatzeko “D.T.” laburdura erabiltzen da AR-en, eta ES-en ere bai oro har, baina zenbaitetan “D” ere bai, edo “Dic. Tri.” AR-erako, laburdura denak berdindu dira. Dena dela, antza ez ditu dauden laburdura guztiak bildu eta beste batzuetan, berdindu gabe, Aizkibelen laburdura zuzen zuzenean kopiatu du, editoreak berak erabakitako laburdura erabili gabe. Cuberok (*ibid.*) ematen digu adibidea: “plur.” agertzen da ES-eko adibide batean, eta hori bera erabili da AR-en plurala adierazteko, laburduren taulan egokitu zaion “P”-ren ordez.

Baina badira arazo larriagoak laburdurekin. Aipatu dugu jada, Aizkibelentzako hiztegia ez zegoela argitaratzeko moduan (§2.1.1). Horren froga nabarmena da, askotan, laburdura ezartzeko espazioa utzia zuela, baina ez zuela laburdura idatzi, esan dugun bezala.

The image shows a handwritten note in a cursive script. It reads: "Sorbetca. () Sorbete pura bebidas." The text is written in brown ink on a light-colored background.

Hori batez ere amaiera aldera gertatzen da, P letra amaitu bezain laster. Gure laginean bederen, editoreak parentesi hutsak dituzten sarreretan “D.T.” laburdura gehitu du sistematikoki, ES-en egon ez arren (N letrako lagineko adibideetan ez du editoreak hala jokatu, hitzok *Hiztegi Hirukoitzean* (HH) agertzen diren arren: “Neur-goitia: Dioptra” kasu). Hala ere, gure lagineko (S letrako) hitz laburduragabe zenbait HH-n zeuden konprobatu dugu eta hala da; beraz, ezin dugu ehuneko ehunean baieztatu, baina ematen du falta ziren laburdurak ez direla modu arbitrarioan ezarri, egiazki HH-n ageri direla, nahiz eta akatsak badauden, esate baterako, *ZUHURES-BAGEA* AR-ek Pouvreauri egozten dion bitartean, ES-en parentesia hutsik dago. Kontrako fenomenoaren adibideak ere badaude, ES-en “Dic. tri.” laburdura duten zenbait azpisarrerek AR-en ez dute horrelakorik, *BARBILDUA* edo *BALDA* kasu. Edo *DITU* aditzaren paradigmak, ES-en “G”, “L” edo “V” laburdurak ditu, hots, gipuzkera, lapurtera edo bizkaiera, baina AR-en saihestu dira horrelako zehaztasunak. Berdin gertatzen da *CHANJA* eta *CHANJATU* hitzekin, “G^o” laburdura baitute ES-en, AR-en ez bezala.

¹⁵ Hori frogatzeko beste argudio bat, zera da: Laburduren zerrendan “Humb: Humboldt” agertzen da, baina Aizkibelek “Humboldt” idazten zuen beti, amaierako *-t* gabe. Are gehiago, hizkuntzalari alemaniarren izena edizioan bertan aipatzen denean, jatorrizko grafia errespetatu dute eta *-t* gabe idatzi; beraz, zerrenda hau ez zuela Aizkibelek egin bistan da.

Horiezaz gain, argitalpenean maskulino eta femeninoari dagozkien laburdurak “h” eta “m” dira hurrenez hurren, D letran topatu ditugun adibideetan. N letrako aditz paradigmak eta laburduren taulan aldiz, “m” eta “f” darabiltza. Eskuizkribua koherentea da beti eta azken biak erabiltzen ditu. Editoreak erdal izenak (*hombre* eta *mujer*) hobetsiko zituen hasieran, nahiz eta gero ES-ekoak nahiago izan. Honek pentsaraz diezaguke, espero bezala, laburduren zerrenda hiztegia amaitu zenean egin zela, hau da, jada ES-eko sistema onartu zenean.

Laburdurei buruzko esanekin amaitzeko, esan dezagun laburdurak adieraztean hutsak ere aurkitu ditugula. *NEURRI-ERA-GO* sarreran “D.T.” dago AR-en baina Aizkibelek ES-en “Der” idatzi du.

2.2.4.5 Gehiketak, ezabaketak, moldaketak eta zuzenketak

Edukian ere badira gehiketak, ezabaketak edo moldaketak. Batzuk zuzenketak dira baina beste batzuk estilo kontuak edo justifikazio handirik gabekoak. ES-en ez dauden (edo guk aurkitu ez ditugun) sarrera eta hitz batzuk AR-en ageri dira, esaterako, *ABOKATU* sarreraren arrastorik ez dago ES-en; horrezaz gain, definizio batzuk osatu dira, adibidez, *ABIJA CHIKIYAC*¹⁶ sarrera hutsik dago ES-en, baina AR-en definizioa gehitu zaio. Berezia da *CHANGARRIA* hitzaren sarrera, letra etzanez honakoa baitakar: *a que se sujeta la bondad ó malicia de una persona ó cosa*. Eskuizkribuan honakoa dator: *con que se [...]ira la realidad de una cosa*. Aski irakurgaitza da ES-eko letra pasarte honetan eta edizioa prestatzean, antzekoa baina eurek asmatua den definizioa sartu dute, egiazki zer jartzen duen ezin izan zutelako jakin. Honek erakusten du, dudarik ez dagoela eskuizkribu hau AR prestatzeko oinarrian izan zutela. Zuzendu egin dute halaber *HARITZA* sarreraren definizioa, ES-en *encina* ematen baita, eta AR-en *roble*.

Baina oro har, ezabaketak dira ES-etik AR-era igarotzean gehien aurkitzen direnak. ES-en badiren sarrera zenbait AR-en kendu dira. AR-en ez daude, esaterako, *ABERASTU*, *ABOKATZE*, *BALDAILCHOA*, *HARDOA*,¹⁷ *SORABURU*, *SORBAN*, *SORNOZA* edo *SORNOZTEGI* sarrerak. Gainera, definizioetan pasarte batzuk saihestu dira, esate baterako, *SORR-EGIN* sarreraren, datorren definizioaz gain, *contraer una deuda* ere bada ES-en, AR-en agertzen ez den bitartean. *SORTALDEKA*¹⁸ sarreraren, ES-en *contrario al Javonio* ere gehitzen da, AR-en ez bezala. Gure ustez, elisio hauek ongi ulertuko ez ziren elementuekin, edo osatu gabe zeuden sarrerekin eginen zituen editoreak, edo ustez tokiz kanpo zeuden definizioekin.

Moldaketak ere badira, gaztelaniazko testuan batez ere, *alguna* vs. *algo*, *líquido* vs. *líquidos* eta horrelako txikikeriak. C letrari buruzko disertazioan ugariak dira estilo arrazioengatik egindako horrelako moldaketak.

Desagun badirela, bistan dena, ES-en ez dauden hutsak, tipografikoak oro har: *Bocaa-bajo*, *MEURRIA* (vs. Neurria), *DIOPTRA*, *ZUKARRA* vs. *ZUHARRA*, *ZUAZKITU* vs. *ZUAZKION*, etab. Oso bakanetan izaten dira akatsok desbideratze iturri.

¹⁶ Bide batez, grafia gaurkotzea ahanzi dute.

¹⁷ ES-en honen sarrera eta laburdura “Ohi.” ageri dira, baina definizio edo ordainik ez, segur aski horregatik saihestu dute.

¹⁸ Errata bat dago, Es-en *SORTALDEKOA* dugu.

Edukiez mintzatzen bukatzeko, aipa dezagun “Hitzaurrea”-n ere halakoak badirela: ES-eko huts batzuk zuendu dira (ES: SAJOXONIAKO, AURBENDENDE, ZAITIRAUTZEN AR: SAJONIAKO, AURBENDE, ZAITIRAUNTZEN), baina beste batzuk egin edo moldatu (ES: GEROAGO, NASTEGABEKOAGO, ONEKOA, PISKA, NERONEK BAKARRIK DAUZKAT AR: GEROGO, NASTEGABEAGO, ONCHOA,¹⁹ PUSKA, NERONEK DAUZKAT).

2. 3. “Prólogo”-aren informazio baliagarria

Gaztelaniazko “Prólogo”-ak argigarria den zerbait frogatzen du. “Prólogo”-an (PR) ere ohiko puntuazio aldaketak eta grafia gaurkotzeak daude, baina espero izatekoak eta errazak dira, oraingoan ez baitira euskaraz ari, gaztelaniaz baizik. Paradoxikoa badirudi ere, gaztelaniazko zati honetan hain zuzen ere froga daiteke inprentako langileak ez zekikeela euskaraz, edo ez zela aski alfabetatua, Aizkibelen euskararen inguruko proposamenak ulertzeko. Ezjakintasun hori, PR-ren plantxak inprimategian atondu zituenak edo zuzentzaileak izan zezakeen; dudarik ez da editoreak edo beste norbaitek egokitze lan sakona egin zuela eskuizkributik argitalpenerako jauzi horretan (aipatu dugun morfema banaketa, zuzenketa zenbait...) eta horretarako euskararen gaineko ezagutza pizar bat behar da: horregatik, duda izpirik gabe, ez dira pertsona bera moldaketak egin dituenak eta PR-ko plantxen atontzailea edo zuzentzailea. Langile honi egotziko zioten erdarazko testua inprentarako prestatzea, segur aski hizkuntza hori baino ez zuelako menperatzen edo etxeko euskara baizik ez zekielako: horrexegatik, ezagutza eza hori gainontzeko hizkuntzetan dauden hitz bakanek frogatuko dute. Ikus dezagun:

ES-en honako pasarte hau aurkitzen dugu: “...se llaman en latín *litterae*” eta AR-en “se llaman *litterah*”. “en latín” hitzak jateaz gain, nonbait ez zekien inprentako langileak latinik eta bistan dena, ez zuen “*litterae*” letra ulertu eta “*litterah*” irakurrita, hori ezarriko zuen, eskusizkribua gaizki irakurtzearen ondorioz hain segur.

Bestetik, grekerazko tipoak izan ez, eta latinoak ezarri behar izan zituela pentsa daiteke, ES-en “ΑΙΤΟΣ ή, όν” dugun bitartean, hitza bere desinentziakin, alegia, AR-en “ΑΙΤΟΣ, ú, ó v” dugu. Maltzur jarritz gero, inprentakoaren ezjakintasunari lepora geniezaiokie akats hau, ez tipo faltari. Pentsa daiteke langileak letra grekoak zirela ez zuela orduan jakin, eta ikusi zuena kopiatzen saiatu zela, interpretazio okerra eginez: desinentziak ikusi beharrean aurkaritza juntagailuak ikusi zituen (ú,ó=’edo’), horrelako zerbait ulertuz: “Aitos edo v”. Bestela ezin esplikatu liteke, ó eta v-ren arteko espazioa.


Baina gehien interesatzen zaiguna inprentako tipografoak euskara (asko) ez zekiela frogatzea da. Akats larriak daude euskal hitzetan. Aizkibelek bustidurak adierazteko goian edo azpian marra gehitzeko aholkatzen du (1883: “Prólogo” VII), eta adibideak eman: *oña, oña, ñipia, aserre* hobesten ditu eta *oina, ollua, tipia, aserre* arbuiatu. Hala idatzirik agertzen dira ES-en, AR-en aldiz, *olua* dugu azpiko marrarik gabe, *otlua* *olluaren* ordez eta *aserre* dagokion marra gainidatzirik gabe, hitzok ongi ulertzen ez zituelako seinale. Bestelako irakurketa okerrak ere badaude: hitza ulertu ez izanaren erakusgarri *aipkamena* dago ES-eko *aiphamenaren* ordez, edo *aifamena*, ese luzearekin, Aizkibelek *f* arrunt bat idatzi zuen lekuan.

¹⁹ Hemen dudarik gabe, <ek> bilkura gazki irakuri dute, antzekoa den <ch>-rekin nahasiz.

3. HIZTEGIAK BI ARGITALPEN? ZENBAT FASZIKULU?

Hiztegiaren argitalpen data 1883koa edo 1884koa den ez dago argi, alez ale edo liburukiz liburuki data aldatzen baita. Zentzukoena litzateke hiztegiak bi argitalpen izan dituela esatea, *primera* eta *segunda edición* ere idatzirik ageri baita argitalpenetan. Lana egiteko, eskuizkribuaz gain, hiztegi inprimatuaren hainbat ale izan ditugu eskutan eta kontua uste baino konplexuagoa da: ikus dezagun.

Has gaitzen ezagutu ditugun ale inprimatuei buruzko deskribapena emanaz, euren arteko desberdintasunak agerian utziz. Desberdintasun horien artean, honakoak dira aipagarri: ale batzuk liburuki batean enkuadernatuak dauden bitartean, beste batzuk bitan daude. Estalki batzuk jatorrizkoak dira eta beste batzuk, geroagokoak; jatorrizkoen artean, estalkia berde edo gorria izan daiteke. Batzuek 1883eko data dakarte barneko azalean, beste batzuek 1884koa eta beste batzuek datarik ez. Portaden tipografia ere alda daiteke eta bertan aipatzen den edizio zenbakia ere bai, lehena edo bigarrena, alegia. Gainera, A letran desbideratze batzuk ale zenbaitetan (eta eskuizkribuan) agertzen diren bitartean, beste batzuetan zuzenduak daude, 2.2.4.2-n erakutsi dugun bezala. Ale batzuek bakarrik dituzten desbideratze horietarik bat hartu dugu, denen erakusgarri:



ABIURKIDA Torcedor.



ABIURKIGILLEA (D. T.) Torcedor.

ABIURKIGILLEA (D. T.) Torcedor.

ABIURKIDA. Torcedor.



Eskuizkribuan desbideratzea dago, <g> <d> baino lehenago ageri baita, hurrenkera alfabetikoa hautsiz. Argitalpen batzuetan hutsa zuzendua dagoen bitartean, beste batzuetan ez.

Horrezaz gain, azal txikia dago, non hiztegiaren izenburua eta edizio zenbakia aipatzen den (lehen edo bigarrena) eta hori ere aipatu dugu taulan. azal txikian agertzen den autorearen izena, ale batzuetan gaztelaniaren grafian (*Aizquibel*) eta beste batzuetan euskal grafian (*Aizkibel*) dago idatzia eta hori ere adierazi dugu, lehenarentzako GA laburdura erabiliz eta bigarrenarentzako EU. Bi liburukitan enkuadernatutako aleek azal eta azal txiki bana dute liburuki bakoitzean eta ez dute zertan bat etorri. Kasu horietan, barra baten bidez (/) bereizi ditugu lehen liburuki eta bigarreneko datuak.



Estalkia, azal txikia eta azala

Esan bezala, azal batzuen eta besteen artean hiru tipografia bereiz daitezke, hara adibide bana:



Lehenari A deituko diogu bigarrenari B eta hirugarrenari C. Azken hau da bigarren liburukietan ageri dena

Aleak izendatzeko honako laburdurak erabiliko ditugu:

Laburdura	Alea
<i>EHU</i>	EHU-ko Koldo Mitxelena liburutegiko fotokopia
<i>Etx.</i>	Gure etxean goretzen dugun alea
<i>Ast1</i>	Bilboko Astarloa liburudendan salgai dagoen ale bat ²⁰
<i>Ast2</i>	Bilboko Astarloa liburudendan salgai duten beste ale bat.
<i>Mitx1</i>	Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko ale bat
<i>Mitx2</i>	Donostiako KMK-ko beste ale bat
<i>Mitx3</i>	Donostiako KMK-ko hirugarren alea.
<i>SS1</i>	Sancho el Sabio fundazioko ale bat
<i>SS2</i>	Sancho el Sabio fundazioko beste alea

Eta datorren taulan, aleen arteko konparazioa egingen dugu:

Alearen Ezaugarriak					Azala		
Alea	Liburuki kopurua	Estalkiaren kolorea	Desbideratzea zuzendurik	Azal txikiko edizioa	Edizioa	Data	Tipografia
<i>EHU</i>	1	Beste enkuadernazio bat	Ez	2.EU	2.	1883	A
<i>Etx</i>	2	Gorria	Ez	2.EU/1.EU	2./Ø	1883/1884	A/C
<i>Ast1</i> ²¹	1	Beste enkuadernazio bat	Bai	1.?	?	Ø	?
<i>Ast2</i>	1	Gorria	Bai	1.?	?	Ø	?
<i>Mitx1</i>	2	Berdea	Ez	2.EU/1.EU	2./Ø	1883/1884	A/C
<i>Mitx2</i>	1	Gorria	Ez	2.EU	2.	1883	A
<i>Mitx3</i>	1	Gorria	Bai	1.GA	Ø	Ø	B
<i>SS1</i>	1	? ²²	Ez	2.EU	2.	1883	A
<i>SS2</i>	2	?	Bai	1.GA/1.EU	Ø/Ø	Ø/1884	B/C

²⁰ Mila esker Bilboko Astarloa liburudendako arduradunei, nire presupuestoa liburua erosteko adinakoa ez zela jakin arren, aleak begiraten eta oharrak hartzen nahi beste denbora egoten utzi zidatelako.

²¹ Tamalez Astarloako aleak denbora laburrez begiratzeko aukera izan genuen eta ez genuen argazki kamara soinean; beraz, datu batzuk falta ditugu.

²² Irudiak txuri-beltzean daude, beraz...

Atera ditzagun ondorioak. Ikusten denez, liburuki kopuruak ez du zerikusirik edizioen auzian, *SS2* eta *Mitx3* aleak erkatuz, ikusten baitugu gainontzeko ezaugarriak berdinak izan arren, batek liburuki bat duela eta beste batek bi. Azalaren koloreak ez digu, aldi berean, bi argitaraldi bereizten lagunduko, *Mitx1* eta *Etx* aleak berdinak baitira guztiz, horretan izan ezik.

Bigarren liburukiei erreparatuko diegu orain. Koherenteak dira euren artean, denek baitaramate lehen edizioaren marka eta egilearen izena euskaraz azal txikian, C tipografiako azala 1884ko dataduna eta ediziorik aipatzen ez duena.

Nahas-mahasa eta desberdintasunak lehen liburukietan ditugu, eta liburuki bakarreko edizioetan, jakina. Baina badira joera koherenteak kaos horren erdian. Desbideratzea zuzenduta duten aleek azal txikian lehen edizioa dela diote eta autorearen izena erdal grafian dakarte; desbideratzea zuzendu gabe, hots, eskuizkribuan bezala ematen duten aleek, azal txikian *Aizkibel*, euskaraz, dute eta 2. edizioa dela esaten digute. Bestetik, desbideratzea duten aleek, oro har A azala dakarte, 1883ko datarekin, salbu *SS2* alea, zeinak B azala duen, datarik gabea berau.

Beraz, zer argitaratu zen zer baino lehenago? Kontuan har dezagun hiztegia ez zela zuzenean liburukietan argitaratu, faszikuluka baizik. Oso argigarriak dira hori bermatzeko eta faszikuluen tamaina kalkulatzeko, honako deklarazioak:

La Real Academia Española ha examinado con la debida atención el prospecto, el prólogo y los cinco cuadernos del DICCIONARIO BASCO-ESPAÑOL compuesto por D. J. Francisco de Aizquibel, cuyos cuadernos *se extienden hasta la página 140* y comprenden desde el artículo *A, El, Ella*, hasta el sustantivo *BURNI BRAZKIA*.²³ (Aizkibel, 1883: “Dictamen de la Real Academia Española”. Letra etzana gurea).

edo

[El diccionario de Aizkibel] se pública (sic) en cuadernos de 8 entregas, siendo el precio de cada uno de aquellos una peseta. El diccionario constará de 25 ó 30 cuadernos. (Iturralde y Suit, 1882: 349).

Academiaren errana zuzena bada, 140 orri ziren 5 koaderno, beraz, koaderno bakoitzak 28 orrialde inguru izanen zituen, 3 edo 4 plegu laurden. Hiztegiak 163 plegu izan bazituen orotara, 1304 orrialde inguru, pentsatzekoa da, hiztegi osoaren orrialde kopurua koaderno bakoitzeko orrialde kopuruarekin zatituta, Aizkibelen hiztegiak 46 koaderno inguru izanen zituela. Kalkulu hauek, edonola ere, ez datoz bat Iturralde y Suitek egindako estimazioarekin, nahiz eta ezin dugun jakin zer den Iturralde y Suitentzako “entrega” bat. Hiztegi osoaren orrialde kopurua (1304) Iturralde y Suitek egindako koaderno estimazioarekin zatituz gero (demagun 27 koaderno izan zirela), 48 orrialde inguru zituzkeen koaderno bakoitzak. Ikusi ditugun aleen enkoaderazioak ez digu koadernoak bereizteko aukerarik ematen; beraz, argitu gabeko auzia izanen da hau.

Edonola ere, argitalpen kopuruaz mintzatzen ari garen une honetan, datei erreparatzea da hoberena. Iturralde y Suiten testutik atera daiteke 1882an inprimatzen eta ziur aski banatzen hasiak zirela hiztegiaren lehen koadernoak. Hain segur, banaketa 1883. urtean

²³ Eskerrak ez ziren Academiakoak hiztegiari oniritzia emateko birpasa egiten ari zirenean, C letraraino ailegatu, bertan egurra banatzen baitzaie: “La Academia mira tal vez con alto desprecio [etimologiak] sólo por la razón de que no las entiende” edo “El alfabeto castellano es sumamente defectuoso y es muy extraño que la Academia Española no haya tratado de expurgarlo” (Aizkibel, 1883: 143).


zehir eginen zen eta 1884. urtean amaituko. bigarren liburuki guztiek eta bakarrik horiek dute 1884ko data eta euren azal txikian 1. argitalpena direla esaten zaigu; hortaz, bigarren liburukiek argitalpen bakarra izan zuten, 1884an.

Lehen liburukiek eta ale bakarrean kaleratutako hiztegiek akaso, argitaraldi bi ezagutu zituzten. 1) *Etx*, *Mitx1* eta *Mitx2* alde batetik, hau da, desbideratzea zuzendu gabe zutenak, beste ezaugarri komun batzuen artean, eta 2) *Ast1*, *Ast2*, *Mitx3* eta *SS2* bestetik, desbideratzea zuzenduta dutenak.

Nabarmena da, beraz, bi talde daudela, baina, zein da lehena kronologian? Arazoa pizten zaigu: ediziorik zaharrena desbideratzea zuzendu gabe duena dela pentsatu behar genuke, eskuizkribuan ere hutsa hala agertzen baita: 1. taldea litzateke zaharrena. Baina, zergatik diote, orduan, azal txikian eta azalean 2. edizioa direla? Eta zergatik diote 2. taldekoek 1. edizioa direla, akatsa zuzendua badute? Ez dakigu zein erantzun eman. Nabarmena da lehen edizioek, azal txikian egilearen izena gaztelaniaren grafian dakartenak, desbideratzea zuzenduta dutela eta 2. ediziokoek egilearen izena euskaratu zutela baina desbideratzea mantendu.

Pentsa genezake azal eta azal txikiak alde batetik eta hiztegia bera bestetik banatu zirela (faszikuluka banatu baitzen lana) eta nahastu egin zirela argitalpen zaharrak eta azal berriak, baina hori sistematikoki gertatu dela sinetsi beharko genuke. Baliteke lan horiek leku desberdinetan enkoadernatu izana, *Mitx3*-k Irunen Pio Garmendiarenean enkoadernatu zutela baitio eta elementuen ordena (kromoa, kromoaren deskribapena, Akademiaren gutuna, etab.) ez baita ale guztietan berbera, nahiz eta estalkia gainontzeko aleek ohi duten estalki gorri originala den.

Edonola ere, lehen letra, A, eta gainontzekoen artean, desbideratzeak zuzenduta egon edo ez, bada tipografia desberdintasun bat. Izenburutxoan letra mota ez da berbera A letran eta gainontzekoetan. Letra tipo diferente hori desbideratzedun aleetan zein desbideratze gabeetan egoteak iradokitzen digu A letra inprimatzen ari zirenean oharatu zirela desbideratzeaz, hura zuzendu, eta beranduago hasi zirela gainontzeko letrak inprimatzen, lehena, A, proba moduan edo eginen zutelakoan lehenik.



A letrako eta gainontzeko letren izenburutxoan tipografia desberdina da

Nabarmena da, zeinahi gisaz, A letrak bi argitaraldi izan zituela, lehen aipatu dugun desbideratzeaz gain, badirelako desberdintasun gehiago, batean letra etzanean ematen dituen hitz batzuk bestean ez daude hala: *AINA* dakar batek eta besteak *ADINA*, ES-ek bezala, *ABOST* batek eta *ABOTS* bigarrenak. etab. Finean, bigarren bertsioan desbideratze zenbait zuzendu dira eta gauza batzuetan jatorrizko testuari fidelkiago atxiki zaizkie, nahiz eta akats berri batzuk ere egon, esaterako, Bertsio zaharrean “*ABRIKOTZEA: Albaricoquero*” dator eta bertsio berrian “*ABRIKOTZEA: Albaricoquero*” soberan dagoen espazio batez banatua, bide batez, inprentan plantxak hasieratik eta osorik bermoldatu zituztelako seinale, plantxa zaharrak aprobetxatu izan balituzte, ez litzatekeelako A letraren lehen bertsioan ez dagoen eta zuzenduan dagoen huts berririk agertuko.

Auzi hau behar bezala argitzeko ale gehiago kontuan hartu beharko liritekeela uste dugu eta elementuen hurrenkera gehi guk kontuan hartutako elementuak aztertuta, ondorio zehatzagoak ateratzen saiatu. Edonola ere, ematen du A letra kaleratu zutela, zituen akats ugarietz ohartuta berriz atera zela A letra hori eta gero kaleratu zirela ondorengo letrak. Zuzenketa sartua dutenak lehen edizioa direla dioten bitartean, zuzendu gabe daukatenak bigarrena direla diote eta horretarako ez dugu erantzunik.

4. LABURBILDUZ

Segur aski gauza garantzitsu asko utzi ditugu bidean, asko lerro hauetarik at. Zeinahi gisaz, esandako guztitik zer ikasi badela uste dugu.

Eskuizkribua nolakoa den deskribatu dugu: zein egoeratan eta non dagoen azalduz deskribapen formala egin dugu, argitalpenarekin erkatuta. Atal honekin batera eta beste zenbaitetan, eskuizkribua osatugabea dela erakutsi dugu. Gainera, bi idatzaldi bederen ezagutzen zaizkiola ikusita, eskuizkribuaren egiletasun fisikoari buruz sor daitezkeen zalantzak azaleratu ditugu. Arazoak arazo, López editoreak bere ediziorako eskuizkribu hau erabili zuela erakutsi ahal izan dugu, edukiari eta formari buruzko argudioak emanez.

Bai AR bai ES-ek tipografiaren alorrean duten koherentzia ezaren berri eman dugu, nahiz eta AR-en txukuntze lana egin nahi izan dela bistakoa den. Banaketa morfologikoa tipografikoki AR-en soilik bereizteak editorearen hizkuntzari buruzko hausnarketa agerian utzi du.

Grafia eta fonologiari so, AR-en Aizkibelen arau ortografikoetara moldatu nahia nabarmena da, nahiz eta saio horretan hutsak egon. Eskuizkribua ikusita, Aizkibelek berak grafia berrira moldatzeko zailtasunak izan zituela agerian geratu zaigu. Zenbaitetan Aizkibelek ES-en agertzen dituen ezaugarri dialektalak saihestu nahi izan dira AR-en, baina ES kontuan hartu izanak egilearen hizkeraren berri eman digu.

Editorearen euskararen ezagutza eta egindako hausnarketa aipatu dugu, grafia gaurkotzeetan, moldaketetan eta zuzenketetan nabarmena dena, baina AR-en prestatze lanetan euskaraz jakin ez edo etxeko euskara baizik ez zekien norbait egon zela uste dugu; kultura handirik gabeko inor, topatutako hutsak lekuko.

<Ch>-ren auziaz solastu gara eta hori eta grafia gaurkotze zein zuzenketek eragindako desbideratzeak erakutsi ditugu. Aitzitik, AR-en zuzendu diren desbideratze batzuen adibideak ere gaineratu ditugu. A letran <ch> grafia eta desbideratzeek sortutako akats larriak hona ekarri ditugu eta letra horrek bi argitalpen eduki izana justifikatu dugu.

Laburdurak gogoan, AR-en egindako bateratze lana aipatu beharrean gaude; gainera, akatsak akats, falta ziren laburdurak osatzeko ahalegian egon dela erakutsi nahi izan dugu, beste laburdura batzuk AR-en kendu diren bitartean.

Sarrera batzuk zuzendu, batzuk ezabatu eta beste batzuk gehitu egin dira, editorearen irizpideen arabera, gaizki ulertuak saihestu asmoz batez ere. Moldaketa batek hain zuzen lagundu digu AR-en oinarrian eskuizkribu hori egon dela erakusten.

AR-en argitalpen kopuruari buruz solastean, A letraren auzia berriz azaldu zaigu, adibide batzuk gehitu ditugularik. Argitalpenen artean dagoen aniztasuna agerian geratu da eta zein edizio kaleratu zen zein baino lehenago ezin izan dugu argitu, A letraren kasuan izan ezik, desbideratzeak zuzenduak dituena izan baita bigarren atera dena, jakina, nahiz eta hori ez den portadek eta portadillek aditzera ematen dutena. Edozein gisaz, faszikulu kopuruaren hurbilketa bat egin nahi izan dugu eta ekoadernazioa modu eta akaso toki anitzetan egin zela iruditu zaigu.

5. BIBLIOGRAFIA

Aguirre, Antxon, 1983. “Reseña histórica. José Francisco Aizkibel Epelde (1798-1865)”, *Hizkuntza eta Literatura* 2. 237-288.

Aizkibel, José Francisco, ca. 1838. “Euzkeratik Erderará biurtzeko Itztegia”. Eskuizkribua. Koldo Mitxelena Kulturunean 091 AIZ euz signaturapean gordetzen da.

Aizkibel, José Francisco, 1883/1884. *Diccionario Basco-español titulado Euzkeratik Erderara biurtzeko itztegia*. Eusebio López: Tolosa. Hainbat ale erabili ditugu.

Cubero, Joxean, s. a. “Aizkibelen *Euskeratik erderara biurtzeko itztegia*-ren deskribapena”. EHUko Euskal Lexikografia (B. Urgell) ikasgaiko eskuizkribu argitaragabea.

Larramendi, Manuel, 1745. *Diccionario Trilingue del castellano, bascuence y latín*. Bartolomé Riesgo y Montero: Donostia. Faksimilea PDFn.

Gárate, Justo, 1947-1948. “Apuntes acerca de José Francisco de Aizkibel”, *Eusko-Jakintza. Revue d'études basques - Revista de estudios vascos* 1:5-6, 525-539; 2:1, 23-36.

Iturralde y Suit, Juan, 1882. “Movimiento literario euskaro”, *Revista Euskara* 5. 348-352. Faksimilea. On line [kontsulta 2009-03-21]
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/reveus/05348352.pdf>.

Satrustegi, José M^a, 1998. *J. Frantzisko Aizkibel*. Bidegileak bilduma. Eusko Jaurilaritza: Gasteiz. On line [kontsulta 2009-03-21]
http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/aizkibel.pdf